



100 urte.- Rosario Galan herritarrak 100 urte bete zituen atzo. Festa handia prestatu zuten Atsobakarren hain egun berezia behar bezala ospatzeko. Bertan izan ziren senideak baita herriko hainbat lagun ere. Gorka Lizarraga Gizarte Zerbitzuetako buruak udalaren izenean ere lore sorta handi bat eraman zion Rosariori. Agurra dantzatu zioten eta Jesus Muñoz egoitzako langileak hitz polit batzuk eskaini zizkion, besteak beste Rosario emakume ausarta eta aurreratua izan zela gogora ekarri nahi izan zuten, "bere ideiak beti defendatu dituen emakume indartsua". Opariekin batera urtebetetze guztietan falta ezin den tarta eta kandelak itzaltzea animatu zen Rosario egoitzako kideek zorianak zuri abestu bitartean. Rosariok eskerak eman zituen festa eta opariengatik eta bertaratutako guztioi berea bezalako bizitza luze bat izatea opa zigun irribarrea galdu gabe.

3 PARTE HARTZEA

San Pedroak antolatzeko bilerak abian

Udalak auzoz-auzoko bileren ereduari jarraiki herritarren iritzia eta proposamenak jaso nahi ditu ere San Pedro jaiak antolatzeko. Datorren astean abian izango da lehen bilera sorta. Gaika sailkatu dira bilera hauek eta herritarrak hautan parte hartzea animatu nahi dituzte udal ordezkariak.

4 EUSKARA

Gidabaimena euskaraz ateratzeagatik saria

Buruntzaldeko udalen ekimeenez, euskaraz gidabaimena iaz atera zuten guztien artean zozketa egin eta 400 euroko sariak banatu dira. Lasarte-Orian Izarra eta Mugica auto-eskolatan atera daiteke gidabaimena euskaraz eta bertan egondako bi gazte izan dira sarituak.



5 EMAKUMEAK

Martxoaren 8a ospatzeko ekimen ezberdinak

Emakumearen nazioarteko egunaren harira hainbat ekintza burutu dira herrian. Hitzaldia, ipuin kontalari saioa edota filma izan dira horietako batzuk. Gaurko antzerkia eta afaria antolatu dituzte. Udalak ere adierazpen instituzionala egin zuen Martxoaren 8aren aldarrikapenekin bat eginez.

Bideo Lagunak



Betiko zerbitzua
gure aholkularitza
onenarekin

UDABERRIKO ESKAINTZAK BEGIRATU!

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373134
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com



Inguruko erakusketarik onena!



Neure kabuz



Ane Labaka

Emakumea zara

Emakumea zara. Gaztea, etxeko andrea, errebeldea, militantea, ama, langilea, koherentea, irakaslea, medikua, amona... eta feminista.

Ez zara eroso sentitzen kalera besapeak depilatu gabe irteten zarenean. Hasperen egiten duzu egunkarian bere senarraren eskuetan hildako beste emakume baten eskela dakarrenean. Badakizu azken bertso saiotik ere kartelean agertzeko neska bat behar zutelako deitu zizutela. Ez zara gai parrandan gerturatzan diren babosoei merezi adinako erantzun bat emateko. Klaseko mutilei futbolearen errez irabazi ohi zenien arren, futbola mutilen kirola dela sinistu behar izan duzu azkenean. Beldurtu egiten zaitu larunbat gauetan zure etxerainoko bidea bakarrik egin behar izateak. Herriko festak iristean kamisetak saltzeari ekiten diozu txoznako montajea egin behar ez izateko, izan ere, oraindik ez dakizu rotaflexa zer den. Berak gehien desiratzen zuen oparia zela jakin arren, zure iloba Mattini ez diozu urtebetetze egunean kotxekapota oparitu bere aitak esango dizunaren beldur zarelako. Azkenaldian pertsona bat baino gehiagorekin oheratu zarelako "puta" etiketa daramazuz soinean; beraiek "putoamok" dira.

Borroka feminista sinisten duzu; iraultza moreetan. Urtean bitan bada ere, ez duzu inoiz huts egiten azaroren 25 eta martxoaren 8ko kontzentretara. Ni ere emakumea naiz, emakume feminista. Eta zu?

Gure mendekua zoriontsu izatea da.

Zorion agurrak



Oier

Bost urte pasa dira gure bizitza politagoa egitera etorri zinetik. Gurasoak eta Unax.



Julen

Zorionak! la hamar urte! Segi horrela txapeldun.



Javier

Zorionak laugarren urtebetetzean zure guraso eta arrebaren partetik.



Eneritz

Zorionak bihotza!! Ondo pasa zure 5. urtebetetzean, guraso eta Nerearen partetik.



Nara

Zorionak printsesita seguru oso ondo pasako duzula! Muxu asko familiaren partetik.



Alazne eta Izar

Zorionak eta muxu asko aitatzu eta Leireren partetik.



Manolo

Zorionak eta ondo pasa zure urtebetetzean! Muxu handi bat familiaren partetik.



Oier

Nora zoaz sinpatiko? Zorionak eta txokolatezko hiru muxu aitona eta familiaren partetik.



Lur

Zorionak, zure urtebetetzean, sei muxu aitaxo eta amatxoren partetik.



Sara

Zorionak eta muxu ugari familiaren partetik.



Beñat

Zorionak osaben eta familiaren partetik. Basurde muxu asko.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo www.txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Estudio bat alokatzen da Vieux-Boucaux-en Aste Santurako edo Pazko asterako. Prezio onean .Tel.: 688 667982
- Garaje itxia alokatzen da Lasarte-Oria erdialdean. 657 796 624
- Pisua saldu behar dugu. Presazkoa da. Erdialdean, 60 metro karratu, duela lau urte moldatua. Harremanetarako zenbakia, 659 812 833.
- Garaje marra bat alokatzen da Hipodromo etorbideko 10. zenbakian. Prezio negoziagarria 60-55 euro. Interesa dutenek 943 36 24 72 zenbakira deitu.
- Gela alokatzen da Lasarte-Oriako erdialdean sukalea erabiltzeko aukerarekin. Harremanetarako, 647 025 876.

Lan-eskariak

- Emakume euskalduna, arduratsua, eskaintzen

- da arratsaldetan lan egiteko haurrak zaintzen, garbiketarako edo etxeko lanak egiteko. Harremanetan jartzeko: 677 356413
- Emakume eskaintzen da garbiketa edo helduak zaintzeko, interna eta externa moduan. Paperak ditu. Harremanetarako, 690 146 067.
- 44 urteko emakume eskaintzen da etxeak garbitu edo pertsona helduen etaumeen zaintza egiteko. Baserri edo etxeetara eta Euskal Herriko edozein probintziatarara joateko prest. Harremanetarako zenbakia, 608 643 490.
- Emakume eskaintzen da haurrak edo helduak zaintzeko, orduka, interna edo externa moduan. Esperientzia, informaeke eta paperak ditu. Harremanetarako, 638 302 492.
- Neska arduratsua eskaintzen da orduka lan egiteko, pisuetan, garbiketara lanetarako, pertsona heldu eta haurren zaintzarako eta etxeko lanetarako. Telefonoa: 648 243 984.

- Jatorriz euskalduna den gizonetako bat eskaintzen da edozein motatako lana egiteko: sukaldari laguntzaile, baserriko lanak, aiton amonak zaintzen...Lan egiteko gogoarekin. 627 206 451
- Etxeko lanak egin, haurrak edo pertsona helduak zaintzeko emakume eskaintzen da. Harremanetarako zenbakia, 647 025 876.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak eta ume eta adineko pertsonen zaintzarako. Esperientzi eta erreferentziadun. 647 614 537
- Neska arduratsua eta erreferentziadunak lan egingo luke ume edo adineko pertsonak zaintzen edo garbiketara lanak egiten. 629 871 605
- Emakume eskaintzen etxeko lanak, pertsona helduak edo haurrak zaintzeko. Interna moduan edo orduka lan egiteko. Harremanetarako 609 952 350. Sandra telefono zenbakira deitu.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotza

- Malen Sanz Artetxe, martxoaren 1ean.
- Nahia Goenaga Olasagasti, otsailaren 29an.



Heriotza

- Mercedes Batalla Garcia, martxoaren 2an, 88 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

- Ostirala, 9**
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6 943 363549
- Larunbata, 10**
De Miguel, Kale Nagusia 32 943 371151
- Igandea, 11**
De Miguel, Kale Nagusia 32 943 371151
- Astelehena, 12**
Urbistondo, San Frantzisko 1 943 366567
- Asteartea, 13**
Orue, Jaizkibel plaza 2 943 362652
- Asteazkena, 14**
De Miguel, Kale Nagusia 32 943 371151
- Osteguna, 15**
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea 943 361774

GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero
Chula, Kardaberaz 48
Hernani, Tel.: 943 551793

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskara Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua

PARTE HARTZE PROZESUA

San Pedroetarako jai egitarau irekia

► Herritarrek parte hartu ahal izango dute jaien prestaketan ► Inauterien antolaketan hartutako bideari eusteko asmoa azaldu du Udalak ► Lau bilera egingo dira datorren astean

San Pedro Jaiei buruz hitz egiteko parte hartze prozesua irekiko du Lasarte-Oriako Udalak. Guztira lau bilera ireki egingo dira martxoaren 13tik 16ra jaien egitaraua finkatzeko hasteko. Astearteko bileran San Pedro jaietako egitarau orokorra izango da mintzagai eta egun horietan ekarriko diren musika talde, haur ekintza edota kultur ekitaldiak asteazken, ostegun eta ostiralean. Herritarrek aukera izango dute parte hartzeko eta proposamenak egiteko, astearte eguerdian prentsaren aurrean udal ordezkariak jakinarazi zuten.



Gazteria, Festak eta Kirola zein Parte Hartze saileko ordezkariak Udaletxe berriko balkoitik eman zuten prozesuaren berri.

Udaleko Parte Hartze saileko Alaitz Mendizabal zinegotziak eta Larraitz Sarobe teknikariak, eta Gazteria, Festak eta Kirola saileko Taxio Arrizabalaga zinegotziak eta Xabier Goitia teknikariak eman zuten astearte eguerdian datorren asteartetik ostiralera bitartean kultur etxeko hitzaldi gelan arratsaldeko 18:30ean egingo diren bilera sortaren berri.

Udaleko bi batzorde hauek jarri dute martxan jaiak antolatzeko parte hartze prozesu berria. Tasio Arrizabalaga zinegotziak asteartean prentsaurrekoan nabarmendu zuenez, Inauterien antolaketan izan zen abiapuntua. Lehen esperientzia hori "positiboa"

izan zela azpimarratu zuen gainera, bileratan jende askok parte hartu zuelako eta "aste-bukaera benetan paregabea antolatzea" lortu zelako.

Bi fasetako prozesua

Beraz bide hori hartu eta lau bilera antolatzea erabaki du Udalak. Parte hartze prozesuaren eslogana "San Pedroetan ere, Lasarte-Oria jaietz blai" da.

Eztabaida prozesuaren lehen fasean, martxoaren 13tik 16ra, finkatutako behin behineko egitaraua eztabaidatuko da.

Lehen fase honen helburua bileratan herritarren eta herri-

PARTE HARTZE PROZESUA
Marxoak 13 Programazioa
Marxoak 14 Musika
Marxoak 15 Haur ekintzak
Marxoak 16 Kultur ekitaldiak
 Bilera guztiak 18:30ean
 Kultur-etxeko hitzaldj aretoan

ko taldeen proposamenak jasotzea izango da. Horretarako Udalak duen informazio guztia emango die, besteak beste, aurreko urteetako esperientziak eta aurtengo aurrekontuak eskaintzen dituen baliabideak.

Gerora, bigarren fasean

egitaraua zuzendu ahalko dute herritarrek.

Tasio Arrizabalaga Festen saileko zinegotziak adierazi zuenez, "parte hartzea gure herriarentzat bereziki garrantzitsua dela deritzogu, benetan jai herrikoiei eta zabal batzuk gauzatzeko bide baita, herritar oro jaietan inplikatu eta parte hartzeko bitarteko". Beraz gonbidapena luzatu zien herritarrei parte hartze prozesuan eta sanpedroen antolaketan murgildu daitezten.

Bilerak kultur etxeko hitzaldi aretoan egingo dira, datorren asteartetik ostiralera arratsaldeko 18:30etan hasita.

AISIA

Gazteburuak berri martxan

Gazteburuak bueltan dira eta bihurtik aurrera egitaraua zabaldu izango da.

Biharkoan, marxoak 10, 16:30etatik aurrera lagun ezkutuaren bila pres-tatu dute.

Begiraleak umeak haue-tan parte hartzera animatu nahi dituzte. Hitzordua Ttakunen lokal zaharrean izango da, Erribera kalean 1 behea.

FESTAK

Sorgin jaiak antolatzeko bilera irekiak

Sorgin Jaiak antolatzeko bilera burutzen ari dira larunbatero 16:00etan Lanbide ondoan kokatzen den gazte-bilgunean. Bilera hauek irekiak dira eta haue-tan parte hartzera animatu nahi dituzte herritarrek. Festa hauen antolakuntzan parte-hartu, lagundu edo ideiak proposatzeko.

ELKARTEA

Xirimirin bazkaria larunbatean

Emakumeen Egunaren hari-ra, bazkaria egingo da bihar larunbata, Xirimirin. Hau 14:30ean, izango da 12 euroren truke.

Parte hartu nahi duen oro dago gonbidatuta, eta bazkaria joateko zerrendak ohiko tabernetan daude jarrita. Aurretik, 12:30ean, poteoa egingo da Trumoi tabernetatik hasita. Parte hartzaile guztiak sonbrero edo kapela eramatera animatzen dituzte.

Gasteizko gertakariak gogoan

Gasteizen 1976ko martxoaren 3an gertatutakoak gogora ekarri nahi izan ditu FAL-CNT sindikatuak.

Gertakari hauek, greba garairean testuinguruan, Zar-magako Asisko San Frantzisko elizaren barnean espainiar polizia militarrek bost langile hil eta ehunka zauritu zituen. Gau hartan bertan Lluís Lluch-ek "Campanades a morts" abestia idatzi zuen, gerora trantsizio garaiko er-serkietako bat izango zena.

Sindikatuak "La Revolta Permanent" dokumentalaren emanaldia antolatu zuen Manuel Lekuona kultur-etxean astelehenean. Bertaratutakoek ikusi ahal izan zuten nola 30



Antolatzaileek gertakari hauek gogoratzearen garrantzia azpimarratu nahi izan zuten.

urte ondoren, abeslari katalana Gasteizera bueltatzen zen. Bere abestia biktimen oroimean antolatutako kontzertu jendetsuan abestera hain

zuzen. Filman Llachen hitz eta kanten artean, lekukoak testigantzak eta egun hartako irudi eta oroitzapenak nahasten dira.

Auzoko bilerak bide onetik

Auzoko bileren lehengo fasea bukatzeaz da. Gaur 19:00etan Sasoeta eta Loidibarrengo bizilagunekin bilduko dira udal ordezkariak ikastetxean eta astelehenean berri, erdiguneko txanda izango da kultur-etxean.

Udal ordezkarien hitzetan "herritarren ekarpenak ugari izaten ari dira". Bilerak bi zatitan banatu dira, lehenengoan, aurkezpen modura, Pablo Barrio alkateak udalaren egungo marko politikoa eta egoera ekonomikoa azaltzen du. Ondoren, bizilagunak taldetan bildu eta auzoko arazoengatik inguruan dituzten ideiak, kexa edo proposame-

nak hitz egiten dituzte. Azkenik denen artean bizilagunek jasotakoak sailkatzen dira. Ideia hauek izango dira hurrengo bilera txandan sakonki landuko direnak. Bigarren txanda, martxoaren 20an hasiko da Zabaletan.



Alaitz Mendizabal ideiak jasotzen.

Buruntzaldeko agenda klik batean

► *Buruntzaldea.org webgunek euskara atalean, agenda bakarrean jasotzen ditu Lasarte-Oria, Hernani, Astigarraga, Andoain, Urnieta eta Usurbilgo kultur ekimenak*

Maidor AZURMENDI

Denbora bat da agenda bateratua Buruntzaldea.org webgunean martxan jarri zenetik baina asteazkenean Usurbilen egindako aurkezpenarekin herritarren artean honen erabilera suspertzeko asmoa azaldu zuten bailara osatzen duten herrietako udal ordezkari eta hedabideek.

Buruntzaldeako udalek, Alaitz Aizpuruak Usurbilgo Euskara Batzordeko buruak azaldu moduan, 2002tik hain zuzen, "euskara egitasmoak elkarlanean ematea onetsi genuenetik hainbat arlotan burutu ditugu lanak: eskalategietan, autoeskolak, arraindegia, errenta aitortpenaren kanpaina edota familia transmisioan besteak beste". Hauek guztiak Buruntzaldea.org web orrian aurki daitezke.

Honekin batera, herri komunikabideek ere badute web honetan gune bat. Euskara zerbitzuekin elkarlanean publikereportajeak burutu eta Buruntzaldeko tokiko euskarazko hedabideentzako plan estrategikoa adostu dute besteak beste.

Hauen baitan, 2009an agenda bateratuaren proiektuari ekin zitzaion. Hau da, eskualdeko kultur agendak batuko zituen tresna bakar bat eratzea.

Herri komunikabideen esku

Imanol Ubeda Usurbilgo Noaia! aldizkariko zuzendariak agerraldian azaldu moduan, "komunikabide bakoitzak bereari eutsiz, eskualderako gure ekarpena egiten dugu agenda bateratu hau osatzuz" izan ere, hedabide bakoitzaren ardura da bere aldizkari zein web orrialdeko agenda elikatzeaz gain, buruntzaldea.org web orriko agenda osatzea. "Buruntzaldeko udalen ekimenez eta hedabideen elkarlanari esker, gure bailarako biztanleek tresna praktikoa bat gehiago dute eskura etxetik mugitu gabe, klik batean".

Gainera "hedabideen zeregina ere bada zerbitzu publiko bat ematea eta horren baitan zerbitzu onena ematen saiatu behar dugu horrelako tresna berriekin".

Hedapen handiagoa

Aurkezpenarekin herri ezberdi-



Usurbilgo Potxoenean aurkeztu zuten Buruntzaldeko agenda bateratua udal eta hedabideen ordezkariak.

netako udal ordezkariak parte hartzeaz gain, hedabide ezberdinek ere bertan parte hartu nahi izan zuten Txintxarri kasu.

Azalpen praktikoaren ondoren, Ainara Rodriguez

Andoaingo euskara batzordeburuak azpimarratu nahi izan zuten kultura arloan udalak egiten ari diren lana handia dela eta ekimen hauei oihartzun handia emateko garrantzitsua dela buruntzaldea.org

web orriko agenda bateratu hau bezalako tresna bat izatea. Aldi berean eskualdeko herrien arteko harremana elkarlanaren ildotik jarraituko duela adierazi zuten bertan bildutakoek.

Sarituak gidabaimena euskaraz ateratzeagatik

Eli Martikorena eta Andoni Urdangarin herritarrek asteazkenean Udaletxeko pleno aretoan jaso zuten gidabaimena euskaraz ateratzeagatik lortutako saria Pablo Barrio alkatearen eskutik.

Lasarte-Oriako Mugica eta Izarra autoeskolak dira egun herriaren gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz ateratzeko aukera eskaintzen dutenak.

Bi autoeskola hauetan 2011. urtean euskaraz azterketa gaingitu zuten artean burututako zozketan sarituak izan ziren Elisabeth Martikorena eta Andoni Urdangarin herritarrek.

Ikasle gehiago

2010. urtean jarri zen abian gidabaimena euskaraz ateratzeko egitasmoa Buruntzaldeko udalek bultzatuta.

Hauek 2009-2010 ikasturtean diru laguntzak bideratu zituzten autoeskolak beharrezkoa zuten materiala euskaraz egiteko eta horrela ekimenarekin bat egin nahi zuten autoeskolak beharrezko materialarekin hornitu ahal



Bi gazteek autoeskoletako ordezkariekin batera jaso zuten Pablo Barriok emandako saria.

izateko. 2010. urtean 34 ikasle gaingitu zuten azterketa teorikoa euskaraz eta 2011ean berriz, 60 izan ziren. Lasarte-Oriako bi gazteek

pozik hartu zuten euren saria. Autoeskolatik jaso zuten sariaren berri eta ustekabe handia izan zela azaldu zizuten.

Eliren kasuan, lagunek Txintxarriren web orrian ikusi zuten bere izena eta deika hasi zitzaizkion sariagatik zoriontzeko.

Bien kasuan gurasoak izan ziren gidabaimena ordaindu zutenak eta ikusi behar orain zeinentzat izango diren eskuraturutako 400 euroak.

Zailtasunik gabe

"Azterketa euskaraz ez da zailagoa eta jendea benetan animatu nahi dut gidabaimena euskaraz ateratzeko" esan zuen Elisabeth Martikorenak. Bere kasuan herriko Mugica autoeskolan atera zuten gidabaimena eta Andonik berriz Izarran egin zuten.

Datorren urtean ere sari hau berriz banatuko dela aurreratu zuten Buruntzaldeko udal ordezkariak Usurbilen orain aste batzuk egindako aurkezpenarekin. Izan ere, horrelako sariarekin egitasmoa gazteen artean sustatu nahi dute geroz eta jende gehiagok gidabaimena euskaraz ateratzera animatzeko.

Pablo Barrio alkateak horrelako egitasmoak bultzatzearen garrantzia azpimarratu nahi izan zuten euskarak esparru guzietan lekua izan dezan.

Martxoaren 8a, ospakizun eguna

► Emakume Langilearen nazioarteko eguna dela eta beste urte batez hainbat izan dira herrian antolatutako ekintzak ► Gaur 19:30ean “Las siete vidas del gato” antzezlan Manuel Lekuonan

Udalak Emakumearen Zentro Zibikoarekin elkarlanean beste urte betez egitarau berezia antolatu du Emakumearen eguna ospatzeko. Asteazkenean hasi ziren ekimenak Jesus Muñoz psikologoak Villa Mirentxun eskainitako hitzaldiarekin. Honetan emakumeen edertasunaz aritu zen. Lehen urtez, haurrentzako ekintza ere antolatu nahi izan dute eta ipuin kontalari saioa izan zuten atzo. Aldarrikapenerako tartea ere izan zen eta bart Udaletxe aurrean elkartaratzea egin zen emakumeen eskubideen alde.



Elkartaratzean alderdi ezberdinetako udal ordezkariak egon ziren hainbat herritarrekin batera.

Maidar AZURMENDI

Emakume langilearen nazioarteko egunarekin batera herrian hainbat izaten dira antolatutako ekimenak. Aurten ere Emakumearen Zentro Zibikoak udalarekin batera egitarau berezia antolatu du.

Horrela asteazkenean Jesus Muñoz psikologo eta psikoterapeutaren hitzaldia izan zen Villa Mirentxun. Emakumez inguratuta, gizonik ez zegoen entzuleen artean, emakumeen edertasunaren inguruan mintzatu zen nazioarte mailako ikuspegi batetik abiatuta.

Edertasuna

Historiari erreparatuz, Egiton, Erromatar inperioko eder-

tasun kanonak ere aipatu zituen edertasunaren kontzeptua historian izan duen garapena azaltzeko.

Emakumearen edertasunaren inguruan kultura ezberdinek duten pertzepzioa ere izan zituen mintzagai psikologoak. Adibidez, Indian garrantzitsuagoa da emakumearen edertasuna baino jantzia. Birmaniako jirafa emakumeen kasuan, geroz eta utzi gehiago lepoan izan, orduan eta ederragoak kontsideratzen dituzte. Aldi berean, gure gizartean edertzat duguna ez da berdin ikusten beste herrialde, kultura askotan eta gehienetan aniztasun honen ikuspegia galtzen dela argudiatu zuen Muñozek.

Bertaratutakoentzat hitzaldi interesgarria gertatu zen

baita aberasgarria ere.

Aldarrikapen eguna

Atzokoa, Martxoaren 8a izaki, aldarrikapenerako eguna izan zen eta 20:00etan kontzentrazioa burutu zen Udaletxeko atarian egun gertatzen diren gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak salatzen. Bertan izan ziren zenbait udal ordezkari besteak beste Pablo Barrio alkatea.

Aurretik, Noemi Fernandez eta Nekane Toribio haur hezitzaileek ipuin kontaketa saio berezia egin zuten Villa Mirentxun. Haurrak berdintasunean heztearen garrantzia azpimarratu nahi izan zuten ekimen honekin eta ipuin ez sexistak kontatu zituzten, familia kontuak eta maitasuna ardatz. Bukatzeko txotxongi-

loekin antzeztu zuten azken istorioa haurren gozamenerako. Saio guztian haur zein helduek adi-adi jarraitu zituzten hezitzaileen kontakizunak.

Zinema

Mokadu bat jateko aukera ere izan zen kultur-etxeko kafetegian antolatutako luncheon. Ekimena irekia izan zen eta jende andana bildu zuen.

Ostean, Okendo zinema taldeak ostegunero antolatzen duen zine emanaldiaren baitan, jai egun honekin bat egiteko, “La fuente de las mujeres” filma hautatu zuen. Emakumeak protagonista diren filme honek hainbat sari jasotakoa da. Berriz hau ikusteko aukera izango da igandean 19:00etan kultur-etxean.

Antzezlan berezia

Gaur berriz, antzerki emanaldia izango da Manuel Lekuona kultur-etxean 19:30ean Lan eta Lan Beti Lan herriko taldearen eskutik. Hauek “Las Siete vidas del gato” antzezlan taularatuko dute. Hau ikusteko oraindik sarrerak lehiatilan erosteko aukera izango da.

Egunari amaiera emateko, 21:30ean afari herrikoia egingo da Araeta jatetxean. Hala ere herrian ospakizunak larunbatean ere izango dira. Izan ere, emakumearen eguna ospatzeko Xirimiri elkarteak bazkaria antolatu du. Honean parte hartzea irekia da eta ohiko tabernatan jarrita daude izena emateko zerrendak. Bazkariaren prezioa 12 eurokoa da.



Villa Mirentxun Jesus Muñozek emakumearen edertasunari buruz eskainitako hitzaldia.



Guztira hiru ipuin, bi haurrentzat eta bat helduei zuzendutakoa, izan ziren bi hezitzaileek kontatutakoak.

OHARRA.-

ATLETISMOA.-

Squash txapelketako izena ematea ixten da

Lasarte-Oriako Kirolen Udal Zerbitzuak beste urte batez XXIV. Squash txapelketa soziala antolatu du. Lehia 2012ko martxoaren 19an hasiko da. Herritarrek gaur dute Kiroldegiko kafetegian izena emateko azken eguna. Inskripzioarekin batera Buruntzaldeako bazkideek 10 euro ordaindu beharko dituzte.

Aste Santuan kirola eta jokoak

Lehen urtez Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuak Aste Santuan kirol eta joko ekintzak antolatu ditu 8 eta 12 urte bitarteko neska-mutilentzat. Apirilaren 2tik 13ra kirol eta jolas desberdinak egingo dituzte, 9:30ak 12:30ak bitartean. Buruntzaldeako ibilbideetan zehar ere irteera bat egingo dute.

Bazkideek 60 euro ordaindu beharko dute. Izena ematea ireki da eta plazak mugatuak dira. Matrikula egin edo informazio gehiago eskuratzeko kiroldegiko bulegora hurbildu behar dira interesatuak.

Civicos izan zen azkarrena Lilatoian

Lasarte-Oriako 44 korrikalari eta 3 patinatzailek parte hartu zuten

Lehengoa asteburuan hainbat lasterketa izan zen gure herrialdean eta lasarteoriatarrak izan ziren bertan. Donostian igandean, 23. Lilatoia antolatu zen eta honetan 47 herritarrek parte hartu zuten. Baina Beasaingo herri lasterketan edo Azpeitiko Zuzenien igoera bertikalean ere izan zen Lasarte-Oriako ordezkariak.

Nerea EIZAGIRRE

Emakume langilearen nazioarteko eguna atzo bazen ere, Donostian igandean hasi ziren ospakizunekin. Izan ere, 23. Lilatoia zela eta, emakume korrikalariak Donostiako kaleak bete zituzten.

Euriari aurre eginez, 2105 korrikalari eta 68 patinatzaile Boulevardeko helmugara iritsi ziren, bost kilometroko ibilbidea egin ondoren.

Lasarteoriatarrei dagokionez, 44 korrikalari izan ziren eta horietan azkarrena, Nieves Civicos izan zen eta senior mailako 8. postuan iritsi zen.

Patinatzaileetan, berriz, herriko 3 emakume izan ziren lasterka. Lehenengoa Naroa Salsamendi izan zen eta 10. postuan amaitu zuen proba.

Beasaingo lasterketa

Egun berean, Beasaingo II. Herri lasterketa ere burutu zituzten.

Hamalau kilometroko proba honetan 234 lasterkaririk parte hartu zuten eta horien artean, Julen Ollokiegi, 55:50 eta Peio Fadrique, 1:09:55 herritarrek izan ziren.

Igoera bertikala

Honetaz gain, Azpeitiako Zuzenien igoera bertikala proban izan zen Endika Gar-



Nieves Civicos izan zen lasarteoriatarren artean lehenengoa.

FESTAK.COM

tzia herritarra. Proba honek 2,8 kilometro dituen arren, 804 metroko desnibela du eta mendi lasterketarako txapelketetarako baliagarria da.

Gartziak 32 minutu 39 segundotan egin zuen ibilbidea, zazpigarren postuan amaituz.

Era berean, Endika Gar-

tziak berak larunbatean Gipuzkoako duatloi sprint txapelketa zen Eibarko Duatloian parte hartu zuen.

Partehartzaileek 5 kilometro korrika, 25 km. bizikletan eta azkenik, Eibarko hirian zehar beste 2,5 km. egin zituzten eta 6. postuan amaitu zuen proba herritarrek.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 10

Elbarrena, Zizurkil, 10:00etan
Danena Amaro-Ostadar
I. Infantil, kopa

Michelin, 10:30ean
Texas Lasartearra-Urnieta
I. Kadetea, kopa

Artia, Irun, 12:30ean
Dunboa Eguzki-Ostadar
Infantilen Ohorezko maila, kopa

Asti-Txiki, Zarautz, 12:30ean
Zarautz-Ostadar *Infantil txiki, kopa*

Michelin, 13:45ean
Ostadar-Lagun Onak
Emakumezkoen Erregionala, igoera

Michelin, 15:30ean
Texas Lasartearra-Touring
I. Jubenila, kopa

Asti-Txiki, Zarautz, 16:00etan
Zarautz-Ostadar *I. Kadetea, igoera*

Michelin, 17:15ean
Ostadar-Mutrikuarrik
I. Erregionala, igoera

Harane, Usurbil, 17:30ean
Ostadar-Añorga
Jubenilen Ohorezko maila, igoera

Don Bosco, Errenteria, 18:45ean
Pasaia-Texas Lasartearra
I. Erregionala, kopa

Igandea 11

Michelin, 10:00etan
Ostadar-Martutene *Alebinak, kopa*

Igartza, Beasain, 12:00etan
Beasain-Ostadar
Kadeteen Ohorezko maila, igoera

Martutene, Donostia, 16:00etan
Martutene-Ostadar
Erregional Gorena

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 09

HERRIKO TXAPELKETA

Areto-futboleko pista

19:30ean, Naiban-Trumoi

20:20ean, Los Tiburones Rojas-Oria krist.

21:10ean, Ilargi-El Punto

Larunbata 10

HERRIKO TXAPELKETA

Areto-futboleko pista

09:10ean, El Bar de Mau-Txindoki

11:10ean, Ayete-Indaux

11:10ean, Illun-Balardi harategia

12:10ean, Dakara-Izkiña

13:10ean, Viña del Mar-Buenetxea

14:10ean, Izarra-ISU Leihok

PILOTA

Ostirala 09

Bergara, 19:30ean

Bergara-Intza

Udaberrri txapelketa, eskuz binaka, I. kadetea

Larunbata 10

Usurbil, 12:00etan

Usurbil-Intza

Udaberrri txapelketa, eskuz binaka, I. seniora

Hernani, 15:00etan

Hernani 2-Intza 2

Errendimendu txapelketa, eskuz binaka, 2. urteko alebinak

JUDO

Larunbata 10

Villaviciosa de Odon, 11:00etan

LOKEko hainbat judoket Espainiak
Ligako bigarren jardunaldian parte hartuko dute.

BORROKA

Larunbata 10

Albolote, Granada, 9:00etan eta 18:30ean
LOKEko Amaia Curiel eta Oscar eta Mario Garrido Junior eta eskolarteko mailako Espainiak txapelketan parte hartuko dute.

Igandea 11

Albolote, Granada, 9:00etan
LOKEko Amaia Curiel eta Oscar eta Mario Garrido Junior eta eskolarteko mailako Espainiak txapelketan parte hartuko dute.

ATLETISMOA

Larunbata 10

Antonio Elorza belodromoa, Donostia, 10:00etan
LOKEko Irati Larrañaga atletak Junior mailako Espainiak txapelketan parte hartuko du.

Hernani, 10:30ean

Landaberri eta Zumaburu-Sasoeta ikastetxeko alebin eta infantilek proba konbinatuak Gipuzkoako txapelketako sailkapena dute.

Igandea 11

Donostia, 10:00etan

Herriko hainbat atletak I. Kros Berdea proban parte hartuko dute.

IGERIKETA

Ostirala 09

Palma de Mallorca, 9:30ean

Buruntzaldea IKT-ko Iñigo Ibarburu infantil mailako Espainiak txapelketan izango da.

Larunbata 10

Palma de Mallorca, 9:30ean
Buruntzaldea IKT-ko Iñigo Ibarburu infantil mailako Espainiak txapelketan izango da.

Ordizia, 16:00etan

Buruntzaldea IKT-ko gaztetxoek Kirol Zehaztasuneko 3. jardunaldian parte hartuko dute.

Igandea 11

Palma de Mallorca, 9:30ean
Buruntzaldea IKT-ko Iñigo Ibarburu infantil mailako Espainiak txapelketan izango da.

DUATLOIA

Larunbata 10

Oñati, 15:30ean.

Herriko hainbat atletak Oñatiako duatloian parte hartuko dute.

GIMNASTIKA

Igandea 11

Oiartzun, 10:00etan.

Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastolako alebin eta infantil taldeek Udaberriko Torneoko lehenengo saioa dute.

TXIRRINDULARITZA

Larunbata 10

Azpeitia, 11:00etan

Bazpi txirrindulari eskolako eta herriko kadete mailako gazteek XXXII. Azpeitia Sarian parte hartuko dute.

Hernani, 16:30ean

Bazpi txirrindulari eskolako infantil mailako gazteek Hernaniko Sarian parte hartuko dute.

Igandea 11

Biyak Bat goitza aurrean, 9:00etan
Ostadar SKT-ko zikloturista taldeak Zumaiara egingo du irteera.

Errenteria, 16:30ean

Bazpi txirrindulari eskolako eta herriko jubentilek XXIX. Errenteriko Hiria sarian parte hartuko dute.

ERRUGBYA

Igandea 11

Hernani, 10:30ean

Beltzak Ostadar Jalai eskolako eskolarteko infantilek topaketa dute.

Aiete, Donostia, 10:30ean

Beltzak Ostadar Jalai eskolako alebin eta benjaminen topaketa dute.

BOLO-JOKOA

Igandea 11

Ereñzun, 10:00etan eta 16:30ean

Ostadar SKT-ko bolo jokalariek Lehendakari txapelketako bigarren saioa dute.

EHIZA

Igandea 11

Buruntzako magaletan, 9:00etan

Buruntz-Azpi elkarteko kideek txakurraekin egiten den ehiza txikiko txapelketa jokatuko dute.

Agenda

Larunbata 10, Manuel Lekuona kultur-etxea, 19:00etan



Osasuna guztientzat San Cristobalen

Haren Alde Gobernu Kanpoko Erakundeak elkartasun ekitaldia antolatu du. Honetan, Alboka abesbatza, Jose Ramon San Sebastian, Kike Biguri eta Elena Bugeo parte hartuko dute. Sarrera, 6 euro dira eta bildutako dirua GKE-ak Dominikar Errepublikako San Cristobal eremuan duen osasun proiektu batera bideratuko du.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Igandea 11, 17:00etan

Haurrentzako zinearen barruan, "El gato con botas" filma ikusgai izango da. Gaztelaniaz. Sarrera, 3,40 euro.

Igandea 11, 19:00etan

Okendo Zinema taldearen eskutik, "La fuente de las mujeres" filma ikusgai izango da helduentzako zinema atalean. Gaztelaniaz. Sarrera, 5,50 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Osteguna 15, 21:30ean

Okendo Zinema taldearen eskutik, "La piel que habito" filma ikusgai izango da. Gaztelaniaz. Sarrera, 4,40 euro.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Igandea 18, 17:00etan

Haurrentzako zinearen barruan, "El Cascanueces" filma ikusgai izango da. Gaztelaniaz. Sarrera, 3,40 euro.

Igandea 18, 19:00etan

Helduen zinema atalean, "La piel que habito" filma ikusgai izango da, Oken-

do Zienama taldearen eskutik. Gaztelaniaz. Sarrera, 5,50 euro.

Musika

ABEND KAFE-ANTZOKIA
Ostirala 9, 00:00etan

Flashback taldearen rock doinuak entzuteko aukera.

SIGLO 20

Larunbata 10, 20:00etan

Zepequeño&Pelayo hip hop Live! taldearen hip hop emanaldia, Kultur kale zirkloan.

Larunbata 10, 23:00etan

DJ KA eta DJ SET-en saioak entzun eta dantzatzeko aukera, Kultur kale zirkloan.

MENDI KAFE ROCK

Ostirala 16, 20:00etan

The Back Tracks taldearen kontzertua, Kultur kalea zirkloaren barruan.

ABEND KAFE-ANTZOKIA
Ostirala 16, 23:45ean

"Las culebras" eta "Kalean" taldeen doinuak entzun ahal izango dira Rock gauean. Sarrera aurretik 10 euro eta egunean bertan, 12 euro.

Dantza

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Ostirala 16, 20:30ean

Lasarte Oria Dantzan Zirkuituaren

barruan, Act of god dantz ikuskizuna eskainiko da. Harkaitz Cano lasarte-riarraren testuan oinarrituta dago. Sarrera online, 5 euro, leihatilan, 6 euro.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA
Ostirala 9, 19:30ean

Nazioarteko Emakumearen Eguna ospatzeko, Lan eta Lan Beti Lan taldeko kideek "Las siete vidas del gato" antzezlan eskainiko dute. Gaztelaniaz. Sarrea online, 3 euro.

JALGI KAFE-ANTZOKIA

Ostirala 16, 22:30ean

Ion Martinez eta Saioa Royok "Ispilua" antzezlan eskainiko dute. Euskaraz.

Erakusketa

JALGI KAFE-ANTZOKIA
Martxoan zehar

Rudy artistaren "Ibilbidea Euskal herrian zehar" margolanen erakusketa ikusgai dago. Koadroak salgai daude.



Emakumeen eguneko adierazpenak

Martxoak 8, Emakumearen Nazioarteko eguna

1975 urtean Nazio Batuetako Batzar Nagusiak martxoaren 8 Emakumeen Nazioarteko Eguna izendatu zuen, mugimendu feministek eta elkarteek, indar publiko, gizarte eragile asko eta asko eta herritarrek orokorrean, gure gizartean gizon eta emakumeen arteko berdintasunean eginiko lana aitortu nahian.

Hala ere, gizon eta emakumeen aldetik, eskubideak, boterea eta baliabide eta onurak lortzeko orduan, aritzeko orduan eta kontrol eraginkorra egiterakoan, desberdintasun garrantzitsuak mantentzen dituen gizarte batean bizi gara. Txirotasun eta gizarte bazterketa jasateko arriskuan dauden pertsonen %82,9a emakumeak dira. Emakumeek egunean 2 ordu eta 23 minutu gehiago ematen dituzte egunero etxeko lanetan, haur eta heldu, persona gaixo edo eta menpekotasun bat dutenen zaintzan. Eta gizon eta emakumeen urteko soldatan 7.000 eurotako aldea dago.

Beraz, berdintasuna oraindik lortzeko daukagunez bere konplexutasun osoan heldu beharreko zeregina izaten jarraitzen du.

Gizon eta emakumeen egiazko erantzunkidetasunak bakarrik orekatuko ditu benetan emakumeentzako aukerak. Erantzunkidetasuna pribatu eta enpoderamentua publikoan dira pentsamendu matxistak baldintzaturik dituen gizarte egiturak baikorki astinduko dituen instrumentuak.

Beharrezkoa da berdintasunean

aurrera egin nahi badugu, emakumeek lana izateko, ordainsari berdina lortzeko, gizon eta emakumeen arteko erantzunkidetasuna eta lana eta familia uztartzeko, ezarritako neurriekin jarraitzea. Zilegi delako baina baita eraginkorra delako ere.

Guzti hau kontutan izanik Lasarte-Oriako udalak:

1. Gizon eta emakumeen arteko egiazko berdintasuna ematen den gizarte lortzeko bidean, martxoaren 8a, EMAKUMEAREN EGUNA, ospatzeko antolatzen diren ekintza eta ekimenetan parte hartzerantz animatzen du euskal gizarteak.

2. Erabakiak hartzeko guneetan parte hartzearen areagotzea eta giza nahiz ekonomia ongizatea lortzen lagunduko dien, gizabanako nahiz emakume kolektiboen honen garrantziaz jabetzeko bidean, emakumeen enpoderamenduzko prozedura hauek bultzatzen jarraitzeko konpromisoa berresten du.

3. Hala, herri mailako berdintasun politikak egiteko, herritarren eta udal erakundearen arteko zubiak eraikitzeko konpromisoa adierazten du.

4. Eusko Jaurilaritza eta Emakunderi premiaz eskatzen die, jarrai dezaten emakume eta gizonen arteko erantzunkidetasuna bultzatzen, honela, gizon eta emakumeen lan bizitzaren, gai publikoetan parte hartzearen eta norbanakoaren bizitzaren pertsona-

laren garapenean berdintasuna lortzeko bidean laguntzen baita. 5. Azkenik, Euskal Gizarte guztiari, gizon eta emakume guztiei eskatzen dio, guztion konpromisoa, gizarte demokratikoago eta justuago bat eraiki dezagula, berdinaren gizarteak.

Lasarte-Oriako Udala

Martxoak 8, Emakumearen Nazioarteko eguna

Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna, hurbil daukagun honetan, Lasarte-Oriako Udalak emakume eta gizonen arteko benetako aukera-berdintasuna lortzeko lanean aritzeko dugun konpromisoa berretsi nahi dugu.

Aldaketa-garaia bizi dugun Euskal Herrian. Aldaketa politiko eta soziala gauzatzeko garaia. Emakumeak aldaketa horren subjektuak izan daitezten, politika feminista garatzea ezinbesteko konpromisoa da.

LASARTE-ORIAKO UDALAK BULTZATUKO DUEN POLITIKA FEMINISTAK HONAKO HAUEK IZANGO DITU KONTUAN:

Emakumeek jasaten duten zapalkuntza gizarazkoa da. Hau da, jendartearen egituraren emaitza da, eta antolaketa ekonomikoan, politikoan eta ideologikoan uztartuta dago. Egiturazkoa da, patriarkatua erabat errotuta

dagoelako gure jendartearen eta antolaketa-eredu hori sistema kapitalistaren ezinbesteko zutabea delako.

Udaletan garatu nahi dugun Politika Feministak estrukturala den arazo bati erantzun nahi dionez, ezinbestean politika integrala izan behar du, emakumeen bizitzaren arlo guztietan eragin behar duelako.

Politika feminista emakumeen eskubideetan oinarrituko da. Beste herri-eredu baten erakuntza dugu helburu. Hau da, gizon eta emakumeen arteko harreman-eredu berri bat eraiki nahi dugu.

Politika feministak emakumeen gidaritzaren parte-hartzea bilatuko du. Politika horren definizioa mugimendu feministarekin eta emakume-taldeekin egin behar da. Horien parte-hartzeak politika feminista erreala definitzea ahalbidetuko du.

Espesifikoki landuz baina zeharkotasuna ahaztu gabe martxan jartzen ari garen proiektua oinarri feministetan egituratuko dugu, eta ikuspegi feministan kontuan izango dugu gure herrian sortzen ditugun politika guztietan.

Bukatzeko, Lasarte-Oriako Bilduk mugimendu feministak antolatuko dituen ekimen guztietara joateko deia luzatu nahi die herritar guztiei.

Asko dugu egiteko eta asko dugu ikasteko. Politika feminista gure herrian marrazten ari garen aldaketa politiko eta sozialaren izarra bihurtu behar dugu.

Lasarte-Oriako Bildu

Iñigo Ibarburu Igerilaria

“Aurrean egoteko aukera sortzen baldin bada, bertan egongo naiz”

Gaurtik igandera Palma de Mallorcan izango den infantil mailako Espainiako txapelketako sei probetan parte hartu dezake herriko gazteak

Buruntzaldea IKT-ko gazteak Espainiako txapelketarako gutxieneko hainbat marka lortu dituzte Neguko denboraldian. Duela bi aste, Itsaso Tolosa eta Haitz Mitxelean Pontevedran izan baziren ere, Oraingoan, Iñigo Ibarburu gaztea dugu Mallorcan infantil mailako txapelketan lehiatuko dena.

Nerea EIZAGIRRE

Iñigo Ibarburu lasarteoriatarra sei urterekin hasi zen igerian. Orduan ez zuen aurtengo denboraldikoan lortutako ere amesten. Izan ere, asteburu honetan Espainiako txapelketako sei probetan, 100 m. eta 200 m. tximeleta, 50 m., 100 m. eta 200 m. libre eta 200 m. bizkar parte hartzeko aukera du. Harekin bildu ginen astelehenean bere prestakuntzari buruz jakiteko.

Neguko denboraldia nola doazkizu?

Denboraldia oso ondo doa gutxieneko marka osko egin ditut eta gustura nago.

Eta orain Espainiako txapelketa prestatzen ari zara...

Bai, azkeneko aste hauetan bolumena jaisten egon naiz eta orain hobeto sentitzen naiz. Eta denborak azkarrago egiten ditut.

Eta entrenamendu gogorragoak egingo dituzu?

Ez, astero berdina da. Baina egunero gauza desberdinak egiten ditugu. Erritmo saioa, erdi mailakoa edo maila biziko entrenamendua eta abiadura saioak izaten ditugu.

Gaur abiadura eta erritmoa ditut. Bihar erritmo eta erdi mailako entrenamendua. Asteazkenean Mallorcara

goaz eta erritmo eta maila biziko entrenamendua izango dut. Hau da asteko egunik okerrrena. Entrenamenduari eustea zaila da. Ostegunean berriro ere, abiadura egingo dut. Eta ostiralean txapelketa hasiko da.

Borja entrenatzailea eta biok zoazte Mallorcara, ezta?

Bai, horrek presio gehiago sartzen du. Baina Borjak ongi egiten du, horrela denbora hobetzen baititugu.

Erronka handia da Espainiako txapelketa, sei probetako gutxieneko marka duzu. Nola ikusten duzu?

Ni denborak jaistera noa eta 100 m. tximeletan aurrean egoteko aukera sortzen baldin bada, bertan egongo naiz lehian.

Horretarako Borjak esaten duenez, 59'1 egin behar dut. Nire marka bi segundo jaistera litzateke hori eta orduan podiumean egongo nintzateke. Baina zaila ikusten dut.

Aurreikusten al zenuten denboraldi hasieran marka horiek lortuko zenituela?

Ez, iazko gutxieneko markak egitea espero nuen, 100 m. libre eta 100 m. tximeleta probetakoak. Borjarekin entrenamendu gogorak egin eta ondo sentitzen nintzen eta gogor ekin diet lehiaketei.

Horrela lortu ditut markak.

Markak aipatu dituzu, baina aurtan dominak ere lortu dituzte?

Denera bospasei bat lortu ditut. Gipuzkoako hiru, bi zilarrezko eta brontzezko bat eta Euskadikotan txapeldun izan nintzen eta bi zilarrezko ditut.

Txapelketa esko izan dira denboraldian, ezta?

Bai, pixka kargatua nago baina azken aste hauetan lasaigo nago eta karga gutxitzen noa.

Gainera, nahiz eta 25 metroko igerilekuan entrenatu, 50 metroko igerilekuan lehiatu behar izan zarete denboraldian zehar...

Bai, horrela da. Baina esan beharra daukat, 50 metroko igerilekuan

25 metrokoan baino hobeto moldatzen naizela. Bira egitean ere hobeto.

Lehenengo aldian luzea egiten da, gero ohitzean errazago egiten da.

Mallorcan 50 metroko igerilekua izango da, baina 25 metroetan nasa bat jartzeko aukera dute eta honela, 25eko bihurtzen dute.

Igeriketa estilo guztiak egiten al dituzu?

Nik gehien bat tximeleta eta crawl egiten ditut.

Hori eta n lortu dituzu gutxieneko markak...

Bai, bizkarreko proban ere marka dut. Baina horretan ez dut lan asko egiten. Bular probak ere

gutxitan egiten ditut.

Tximeleta edo crawl, zeinetan zaude erosoago?

Ni hobeto sentitzen naiz tximeletako probetan lehiatzen naizenean.

Eta distantziari dagokionez, 100 metroak edo 200 metroak, zer nahiago duzu?

Nik 100 metroko proba nahiago dut. Azkarragoa da.

200 metroetarako erresistentzia eta indar handia behar duzu. Zaila egiten da hainbeste irautea.

Infantiletan bigarren urtea duzu, zer moduz?

Gure taldean infantilen mailan zaharrena ni naiz.

Lehiaketari dagokionez, badaude igerilariak oso onak direnak eta zaila direnak irabazten. Beste batzuk nire maila berdinekoak edo baxuagoak dira eta horiei irabazten diet.

Neguko azken lehiaketa duzu hau eta Udako denboraldia prestatzen hasiko zara. Hasi Zein asmo dituzu?

Beste hiru gutxieneko marka egiten saiatuko naiz, 100 m. bizkar, 200 m. eta 400 m. estilo probetan.

Bi egiteko gutxi falta zait eta bestea distantzia luzeagoa da eta orain hobetzen ari naizela, espero dut egitea.

Eta Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketari dagokionez?

Beti bezala, nik dudak gutzia emango dut eta ikusiko da.



aste santuko
Zientzien 2012
txokoak



abrimos de 9:00 a 13:30 etara martxan

2tik 8 urte bitarteko haurrak hartuko dira (2004tik 2009ra bitartean jaioetakoak)



apirilaren 2-3-4 + 10-11-12-13 de abril

amaraun
ludoteka